

AURKIBIDEA

Apirilaren 27an, II. PAZKO IGANDEA.....	4
Maiatzaren 4an, III. PAZKO IGANDEA	12
Maiatzaren 11n, IV. PAZKO IGANDEA	21
Maiatzaren 18an, V. PAZKO IGANDEA.....	29
Maiatzaren 25ean, VI. PAZKO IGANDEA.....	36
Ekainaren 1ean, JAUNAREN IGOKUNDEA	44
Ekainaren 8an, PENTEKOSTE IGANDEA	53
ERANSKINA	61

Apirilaren 27an
II. PAZKO IGANDEA, Pazko zortzigarrena
«Jainkoaren Errukiaren» igandea

Agurra

Jesu Kristo Piztuaren grazia eta bakea izan bitez zuekin.

Sarrerako oharpena

Gaur igandea da. Eta Pazko egunean bezala, gaur ere Jesus gure artean agertuko da. Hemen da, gure artean dugu: Bera mintzatuko zaigu, Bera emango zaigu ogi-ardotan. Guri, noski, apostoluei bezala, pozik eta alai egotea dagokigu. Apur bat erreparatuz gero, bere Espiritua gudan nabarituko dugu, eta ziur egon, maitasunezko eta bizitza berrizko notizia hau hots egitera bidaliak sentituko gara meza honetan.

Bataio-urez zirtatzea

Senide maiteok, egin diezaiogun otoitz Jainko geure Jaunari, Pazko gau santuan bedeinkatu genuen ura Bataioaren oroipenez geure burua zirtatzeko erabiltzera goazen honetan. Ur honek berrizta gaitzala, hartu dugun Espirituari beti leial izan gakizkion.

Ura bedeinkatu nahi bada, ikusi otoitza Meza-liburuko 1286. orrian.

Kantu egoki bat kantatuz, herria zirtatuko du apaizak.

Jainko ahalguztidunak garbi gaitzala bekatutik eta, Eukaristia honen bidez, bere erreinuko mahaian jartzeko gai egin gaitzala.

℟. Amen.

Erruki, Jauna. ℟. Erruki, Jauna.

Kristo, erruki. ℟. Kristo, erruki.

Erruki, Jauna. ℟. Erruki, Jauna.

Aintza zeruetan

Bataioko uretan gizaki berri eginak izan diren guztiekin batera gora dezagun Jainko Aita-Semea-Espiritu Santua.

Otoitza

Beti errukior zaren Jainkoa,
pazko-jaietan suspertu egiten duzu zeure herriaren fedea;
indar ezazu gugan Zeuk emandako grazia,
hobeto uler dezagun,
nolako Bataioaz garbitu gaituzun,
nolako Espirituaz biziberritu
eta nolako odolaz erosi.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ℟. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Apostoluen inguruan sortutako elkartearen testigantza, aberasgarri dugu gaur senide elkartasunean bizitzeko. Jesus fedez onartzeak, egiazko bizia ematen digu.

Lehenengo irakurgaia (Eg 2, 42-47)

Apostoluen Eginak liburutik


Senideek zintzo irauten zuten apostoluen irakaspenak entzuten eta elkarte-bizitzan, ogia zatitzen eta otoitzean.

Jende guztia izaturik zegoen apostoluek egiten zuten hainbeste mirari eta ezaugarriekin. Sinestedun guztiak batasunean bizi ziren eta dena denentzat zeukaten: beren lur eta ondasunak saldu eta

guztien artean banatzen zuten dirua, bakoitzaren beharrari zegokionez.

Egunero bildu ohi ziren elkarrekin tenpluan, eta etxeetan zatitzen zuten ogia, otorduak pozik eta bihotz xaloz eginez. Jainkoa goستن zuten, eta herri osoak begi onez ikusten zituen. Eta Jaunak egunetik egunera biltzen zituen elkartera salbatzen zirenak.

Erantzun-salmoa (Sal 118 [117], 2-4. 13-15b. 22-24.)



- ✠. Esan bezate israeldarrek: haren maitasuna betikkoa.
 Esan bezate aarondar apaizek: haren maitasuna betikkoa.
 Esan bezate Jaunari begirune diotenek:
 haren maitasuna betikkoa. R̃.
- ✠. Gogor bultzatu ninduten botatzeko,
 baina Jauna izan nuen lagun.
 Jauna dut indar eta kantu, hura gertatu zait salbamen.
 Poz- eta garaipen-oihuak zintzoen etxoletan. R̃.
- ✠. Etxegileek baztertutako harria giltzarri gertatu da. ‘
 Jaunak egin du hori, gure begien harrigarri.
 Hau da Jaunaren egintza-eguna,
 poztu gaitezen eta alaitu harengan. R̃.

Bigarren irakurgaia (1 P 1, 3-9)

San Pedro Apostoluaren lehenengo gutunetik

Bedeinkatua Jainkoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita! Bere erruki handiaz itxaropen bizira sortu gaitu berriro, Jesu Kristo hilen artetik piztuz. Horrela, hondatu, zikindu edota zimeldu ez daitekeen ondarea itxaro dugu, zuentzat zeruetan gordea dagoena. Jainkoaren indarrak zaintzen zaituzte sinesmenari esker, azken garaian agertuko den salbamena irits dezazuen.

Horregatik, zaudete pozik, nahiz eta oraindik alditxo batez zenbait probaldi sufritu behar izango duzuen. Horrela, zuen sinesmenak bere jatortasuna erakutsiko du, galkorra izan arren sutan garbitzen den urrea bezala; eta urrea baino askoz baliotsuagoa den zuen sinesmenak gorespena, aintza eta ohorea iritsiko du, Jesu Kristo agertuko denean.

Maite duzue Jesu Kristo, ikusi ez baduzue ere. Eta ikusi gabe harengan sinesten duzuelarik, ezin esan ahaleko pozez, poz distiratsuz, alaitzen zarete eta zeuen sinesmenaren helburua, zeuen salbamena, iristen duzue.

Aleluia (Jn 20, 29)



℣. Ikusi nauzulako sinetsi al duzu, Tomas? –**di**o Jaunak–: zorionekoak ikusi gabe sinesten **du**tenak. ℟.

Ebanjelioa (Jn 20, 19-31)

Homiliarako argibideak

1. Gizakiaren asmo sakonenetako bat, banakakoa nahiz gizartekoa, bakea da. Askotan esaten da bakea izateko gauza askori uko egiteko prest nagoela. Hau ez da tentsiorik edo gatazkarik ez izatea bakarrik, pertsonaren barru-barrenera sartzen da eta bere oinarria Jainkoa da. Gizartearen ikuspegitik, gaur egun, asko hitz egiten da bakeaz: Nazio Batuen Erakundeak bakerako deia egiten die gerran dauden nazioei; estatu buruek bilerak egiten dituzte gero gauzatzen ez diren bake-elkarriketak izanik; gerrak sortzen dira armak saltzeko edo garatzeko bidean dauden herrialdeen aberastasunak eskuratzeko. Bakea aldarrikatzen da, baina justiziarekiko eta giza duintasunarekiko konpromisorik gabe. Joan Paulo II.ak honela zioen: «bakearen izena gaur justizia da».


2. Kristoren Pazkoa –heriotzatik bizira igarotzea– ondasun guztien iturria da. Gaurko ebanjelioan, Kristok bere bakea eskaintzen digu, ez da munduak ematen duena bezalakoa, bake prekarioa, azalekoa, faltsua. Jesusek komunikatzen duen bakeak justizia eta senidetasuna ditu oinarri. Adiskidetzearen emaitza da. Horregatik, Jesusek adiskidetzera bidaltzen ditu ikasleak: «bekatuak barkatzen dizkietenei barkatuta geratzen zaizkie». Beharrezkoa da elkar barkatzea eta adiskidetzea, eta Kristok piztuak posible egiten du hori. Jainkoarekin adiskidetzen gaitu eta penitentziaren sakramentua barkameneko erritu pribatua ez dela ulertzera garamatza. Dimentsio soziala ere badu, Jainkoarekiko adiskidetzearen bidez, senidetasuna bizitzeko bekatu pertsonal eta sozialak gainditzera bultzatzen baitu.

3. Jainkoarekiko komunioa benetako bakearen iturri da. Horrek ikusarazten digu maila guztietan saiatu behar dugula justizia eta senidetasuna lortzen. Ezer gutxi egin dezakegu bakearen dimentsioa soziala eta unibertsala denean, baina egin genezakeen gutxia egin behar dugu. Piztutako pospolo batek gutxi argiztatzen du estadio ilun batean, baina ehun mila elkartzen badira, argi bizia sortzen da. San

Enkoaren herriaren otoitza

inaren piztuera santu eta bizi-emailearen pozez, gure go

Erantzuna: Entzun Zuk, Kristo, herri honen oihua!



- Kristori, bere piztueraz heriotza garaitu eta bekatu desegin duenari eska diezaiogun, kristau guztiak izan daitezela leialak Pazko gau santuan berritutako bataioko hitzekin. Egigun otoitz.
- Kristori, bere piztueraz barkamena eta bakea eman digunari, eska diezaiogun, biziaren bidera itzuli direnek gorde ditzatela Aitaren errukiak itzuli dizkien dohainak. Egigun otoitz.
- Kristori, bere piztueraz herri guztiak poztu, bere dohainez aberastu eta gure bihotzak alaitasunez bete dituenari, eska diezaiogun berri dezala sufritzen dutenen eta negarrez daudenen itxaropena. Egigun otoitz.

—Kristori, bere piztueraz emakumeei poza eman zienari eta emakumeen bidez apostoluei eta hauen bidez mundu guztiari zabaldu zienari, eska diezaiogun, gaur, hemen, bere garaipena ospatzen dugunon alde. Egigun otoitz.

Iganderoko pazkoan salbamenaren harrigarriak biziarazten dizkiguzun gure Jainkoa, entzun Zure herriaren otoitzak eta egizu asma dezagula beti Kristo senideen artean aurkitzen, haiekin batera Kristo Zure Semearen testigantza eman dezagun. Errege bizi baita, hilezkor eta aintzatsu, gizaldi eta gizaldietan.

Eukaristiaren liturgiari oharpena

Lehenengo Pazko hartan bezala, Jesus hemen dugu gaur ere. Lehen bere hitzean eman zaigu; orain, ogi-ardotan. Gure bihotzen hondo-hondotik eskertu dezagun Aita Jainkoa.

Opari gaien gaineko otoitza

Onartu, Jauna, onez, zeure herriaren
[eta bataiatu berrien] eskaintzak,
Zuganako fedez eta Bataioaz biziberriturik,
betiereko zoriona lor dezaten.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *Rx*. Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Jainko ahalguztiduna, egizu,
pazko-sakramentuetan hartu dugun graziak
iraun dezala beti gure bihotzean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *Rx*. Amen.

Bedeinkapen nagusia

Jauna zuekin. *R̥*. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitezte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak
Pazko-festaburu honetan
eta zaindu, erruki handiz, bekatu-bide guztietatik. *R̥*. Amen.

Bere Semearen piztueraz biziberritu zaituzten Jainkoak
eman diezazuela betiko biziaren saria. *R̥*. Amen.

Jaunaren nekaldiko egunak igaro ondoren
Pazko-festaburua ospatzen duzuenok,
irits zaitezte haren laguntzaz
zeruan betiko pazko-jaietara. *R̥*. Amen.

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak. *R̥*. Amen.

Zoazte Jaunaren bakean, aleluia, aleluia!
Eskerrak Jainkoari, aleluia, aleluia!

Maiatzaren 4an

III. PAZKO IGANDEA

Agurra

Heriotzaren lokarriak etenik Jesu Kristo berpiztu duen Jainko bizi-emailea izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Kristo Piztua gure artean dago egiaz. Ezagutu dezagun batzarraren erdian; entzungo dugun Hitz ederrean; elkarbanatuko dugun Ogi bizian. Eta eraman dezagun gero gurekin, goazen toki guztietan Kristoren bizia izan dadin sugar eta bultzagarri.

Bataio-urez zirtatzea

Senide maiteok, egin diezaiogun otoitz Jainko geure Jaunari, Pazko gau santuan bedeinkatu genuen ura Bataioaren oroipenez geure burua zirtatzeko erabiltzera goazen honetan. Ur honek berrizta gaitzala, hartu dugun Espirituari beti leial izan gakizkion.

Ura bedeinkatu nahi bada, ikusi otoitza Meza-liburuko 1286. orrian.

Kantu egoki bat kantatuz, herria zirtatuko du apaizak.

Jainko ahalguztidunak garbi gaitzala bekatutik eta, Eukaristia honen bidez, bere erreinuko mahaian jartzeko gai egin gaitzala.

℟. Amen.

Erruki, Jauna. ℟. Erruki, Jauna.

Kristo, erruki. ℟. Kristo, erruki.

Erruki, Jauna. ℟. Erruki, Jauna.

Aintza zeruetan

Kanta dezagun aintzazko gorazarrea, gure alde otoitz egiteko Aitaren eskuin aldean dagoen Jesu Kristo Jaunari dei eginez.

Otoitza

Oi Jainko, poztu dadila beti
biziberritu eta gaztetu duzun zure herria;
egizu, zure seme-alaba ordeko izatea
berreskuratu izanaz pozturik,
usterik sendoenaz itxaro dezagula piztuera-eguna.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *Rx*. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Apostoluek sufritu zuten Jesus Piztua hots egiteagatik, baina poza ere izan zuten horri esker. Gaur ere Hitza entzuten dugu, barruko poz kabituezinekoz hitz hori aldarrikatzeko gai izan gaitezen.

Lehenengo irakurgaia (*Eg 2, 14. 22-33*)

Apostoluen Eginak liburutik


Pentekoste-egunean, Pedrok, Hamaika apostoluen artean zutik, ahotsa altxatuz, honela hitz egin zuen: «Juduok eta Jerusalemen bizi zareten guztiok, entzun arretaz nire hitzak. Denok dakizuenetz, zuen aurrean sinesgarri egin zuen Jainkoak Nazareteko Jesus, haren bidez egintza ahaltsuak, mirariak eta ezaugarriak eginez. Jainkoak zuen eskura eman zuen, bere asmoaren eta aurrez hartutako erabakiaren arabera, eta zuek hil egin zenuten, sinesgabeen eskuz gurutzean

josiz; baina Jainkoak piztu egin zuen, heriotzaren lokarrietatik askatuz, Herioak ezin baitzuen hura bere menpean eduki.

Izan ere, hau dio Davidek hartaz: “Begi aurrean ikusten nuen beti Jauna; eskuinean dudala, ez naiteke dardara. Horregatik alai dut bihotza, pozik mingaina, eta nire gorputzak ere itxaropenean du atsedeen. Ez baituzu nire bizia Herio-leizera egotziko, ezta ere zeure fededuna hilobian usteltzen utziko. Bizirako bidea erakutsiko didazu, alaitasunez beteko nauzu zeure aurrean”.

Senideok, uztazue argi eta garbi esaten, gure aita David hil zela eta hobiratu zutela. Haren hilobia geure artean dugu gaurdaino. Baina profeta zen eta bazekien Jainkoak zin eginez agindu ziola, haren odoleko bat eseriko zela beraren tronuan. Beraz, aurrez ikusi zuen Mesias piztuko zela, eta honetaz mintzo zen hau esatean: haren bizia ez zuela Herio-leizera egotziko eta ez zela haren gorputza hilobian ustelduko. Jesus hori piztu egin du Jainkoak, eta gu guztiok gara horren testigu. Jainkoak bere eskuinaldera altxatu duelarik, agindutako Espiritu Santua hartu du Aitarengandik eta guri isuri; hauxe da zuek ikusten eta entzuten ari zaretena».

Erantzun-salmoa (*Sal* 30 [29], 2 eta 4. 5-6. 11-12a eta 13b)



- ℣. Goratzen zaitut, Jauna, onik atera nauzulako, etsaiei nire lepotik pozten utzi ez diezulako. Jauna, Herio-leizetik aterara nauzu, zulora jaistear nengoela biziberritu. ℟.

- 𐌹. Kanta Jaunari, haren fededunok,
 goretsazue, haren santutasuna gogoratuz.
 Une baterako da haren haserrea,
 bizi guztirako haren onginahia.
 Arratsean negarra da gurean,
 poz-oihua goizean. 𐌺.
- 𐌹. Entzun, Jauna, eta erruki nitaz,
 izan zakizkit laguntzaile, Jauna.
 Negarra dantza bihurtu didazu,
 Jauna, ene Jainkoa, eskerrak emango dizkizut beti. 𐌺.

Bigarren irakurgaia (Ap 5, 11-14)


Apokalipsia liburutik

Nik, Joanek, ikuskarian, tronuaren, bizidun izakien eta zaharren inguruan zeuden aingeru askoren ahotsa entzun nuen; milaka eta milioika ziren, eta hots handiz zioten: «Hila izan den Bildotsa bada nor ahalmena eta aberastasunak, jakinduria eta indarra, ohorea, aintza eta gorespina hartzeko».

Eta zeruan, lur gainean, lurpean eta itsasoan dauden sorkari guztiei, hau esaten entzun nien: «Tronuan eserita dagoenari eta Bildotsari gorespina, ohorea, aintza eta agintaritza gizaldi eta gizaldietan».

Lau izaki bizidunek «Amen» erantzun zuten, eta zaharrek ahuspeztu eta gurtu egin zuten.

Aleluia



✠. Piztu da Kristo, gauza guztiak egin zituena,
eta gizadiatz erruki izan duena. ✠.

Ebanjelioa (*Jn 21, 1-19 edota laburrago Jn 21, 1-14*)

Homiliarako argibideak

JAUNA DA

Irakurgaiak

Apostoluen Eginak irakurtzen eta Elizaren lehen egunak gogoratzen jarraituko dugu. Handik gutxira, jazarpena eta sufrimendua agertu ziren apostoluen zerbitzuan eta kristauen bizitzan. Jainkoaren obedientzia da lehenengo betebeharra eta poztasunik handiena. Apokalipsiaren irakurketak fedearen garaipenaren ikuspegi bat eskaintzen digu, ezaugarri horiek berak dituen. Jesus Jainkoaren Bildotsa da, lepoa moztu dioten oparia. Jarraitzaileok ezin dugu kontraesanetik ihes egin, eta ezin dugu zailtasunen aurrean kikildu. Ebanjelioak Jesusen agerpenetako bat kontatzen digu, fedearen sendotzen duten uneak eta Elizaren izaera sakonaren agerpen-uneak. Baita sinesgaiztasunaren kontrapuntuarekin ere. Zailtasun horiek ez dira gaurko kontua.

Mezua

Joanen kontakizuna Elizaren benetako benetako argazkia da. Apostoluek «Pedrorekin» arrantzatuko dute. Baina beraiek bakarrik ez dute ezer lortzen. Arrantza ugari lortzen dute Jaunaren aginduz

sareak botatzen dituztenean eta bera bertan dutenean. Lanaren ugaritasunean Jauna ezagutzen dute. Ezagutzen duen lehena Joan da, Jauna maite duen ikaslea. Maitasunak fedearen begiak irekitzen ditu. Jesusek gonbit egiten die eta fede-testuinguru batean agertzen da. «Denek zekiten Jauna zela». Eta fedearen eta intimitatearen testuinguru horretan, Jesusek Pedrori eman dio fedea maitasun-zerbitzu gisa zaintzeko ardura: «Maite al nauzu?». Heriotzarainoko maitasuna, leiala, betirakoa. Pedroren erantzuna apala eta maitagarria da, «Zuk dena dakizu, zuk badakizu maite zaitudala». Pasarte hau, Filipoko Zesarean (ik. Mt 16, 17-19), egindako promesarekin batera (Zu harria zara) fede katolikoaren oinarria dira, Pedrok apostoluen artean zuen lehen-tokia adierazten du eta, gero, betiko, Elizaren eraketan eragin du.

Bizitzarako iradokizunak

Eukaristiaren ospakizun bakoitza, sakramentu-ospakizun bakoitza, Kristoren maitasunean egindako topaketa bat da, Jainkoaren bizilekuraino eramaten gaituena. Topaketa horrek salbamena gerturatzen digu eta Jesusen izenean senideei on egiteko prestatzen. Sakramentuak, apostoluek Jesus piztuarekin izan zituzten topaketak bezala dira guretzat. Haietan gure fedea berresten da eta Jesusen bizitza santuaz geureganatzen dugu. Egun hauetako irakurgaietan ikusten dugu fedea eta bizitza santua Pedroren eta apostoluen bidez iristen zaizkigula, haien oinordeko diren gotzainengan iraunarazten delarik fedearen altxorra zaintzearen eginkizuna. Pazko garaia fedearen denbora da Kristo berpiztuarekiko harreman pertsonal gisa, baina beti apostoluen lekukotzatik abiatuta, Pedrokekin bat egiteak bermatuta. Apostoluen fedearen bitartekaritzarik gabe ez dago Elizarik. Apostoluen eta haien ondorengoen bitartekaritzarik gabe, ez ginake Jesusen Eliza. Ez fedea ez Eliza ez dira gugandik jaiotzen, dohain bat dira, Jesusengandik datoz, apostoluen eta haien oinordekoen bitartekaritzagatik eta Espiritu Santuaren dohainagatik.

Jainkoaren herriaren otoitza

Dei egiogun, senide maiteok, beti gure alde otoitzean ari den Kristori, bekatuaren eta heriotzaren garaileari:

Erantzuna: **Entzun Zuk, Kristo, herri honen oihua!**



En - tzun, Zuk Kris - to, he-rri ho - nen oi-hu - a.

- Kristok, Jaunak, fededunen bihotzak beregana ditzan eta haien gogoak sendotu, zeruko ondasunak bila ditzaten, han baitago Bera Aitaren eskuinaldean. Egigun otoitz.
- Kristok, kreazioaren nagusiak, herri guztiei bere agerraldietan ikasleei eman zien bake bera eman diezaien. Egigun otoitz.
- Kristok, heriotza desegin duenak eta gaixotasun ororen sendagile denak, ahulez eta zorigaitzekoez erruki izan dezan eta mundutik gosea, gerra eta gaitz oro urruntzen lagun diezagun. Egigun otoitz.
- Kristok, Jaunak, gure elkarte bedeinka dezan eta Bere garaipena ospatzera gaur bildu garenoi bakea, alaitasuna eta atsedena eman diezagun. Egigun otoitz.

Jainko Jauna, gure bekatuengatik eskainia izan zen Zure Semearen garaipenean jarri duzu adiskidetzearen eta bakearen oinarria; entzun Zure Elizaren otoitzak, eta egin gaitzazu Zure maitasunean baketutako gizadi berriaren ezaugarri eta legami. Zure Seme Jesu Kristoren bitartez, errege bizi baita, hilezkor eta aintzatsu, gizaldi eta gizaldietan.

Eukaristiaren liturgiari oharpena

Mezako otoitz nagusira goaz: esker ona eta gorapena dario. Kristo berak Ogia zatituko du guretzat. Kristo bera emango zaigu janari.

Oparigaien gaineko otoitza

Onartu, Jauna, zure Elizak bozkarioz ekarritako eskaintzak eta, horrelako poza eman diozunez gero, emaiozu fruitutzat betiko zoriona.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R*. Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Begira bihotz onez, Jauna, zeure herriari eta, betiereko biziaren sakramentuetan eraberritu duzunez, egizu, irits dadila aintzaz beteko den haragiaren piztuera hilezkorrera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R*. Amen.

Bedeinkapen nagusia

Jauna zuekin. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitezte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

Bere Semearen piztueraz salbatu
eta bere seme-alaba egin zaituzten Jainkoak
poztu zaitzatela bere bedeinkapenaz. Amen.

Bere erospenaz egiazko askatasuna lortu dizuen Kristok
eman diezazuela betiko oinordekotza. Amen.

Zuen sinesmena aitortuz,
Bataioan Kristorekin piztu zaretenok,
orain zintzo bizi izanez,
lor dezazuela zeruan Harekin bat egitea. Amen.

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak. Amen.

Zoazte Jaunaren bakean, aleluia, aleluia!
Eskerrak Jainkoari, aleluia, aleluia!

Maiatzaren 11n
IV. PAZKO IGANDEA

Bokazioen alde otoitz egiteko mundu jardunaldia

Misio herrietako bokazioen jardunaldia

Agurra

Heriotzaren lokarriak etenik Jesu Kristo berpiztu duen Jainko bizi-emailea izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Kristoren Piztuera ospatzen jarraitzen dugu eta gaurkoan Beraren Artzain on izateari begiratzen diogu. Berak zaintzen gaitu, berak babesten. Badakigu zenbat egin duen gure alde!

Gaur, Bokazio aldeko Mundu jardunaldia dugu. Eta, gainera, Misio herrietan apaiz izateko prestatzen direnei laguntzeko eskaintzen dugu otoitza eta diru-bilketa. Munduko bazter guztietan izan daitezen Kristo Artzain onaren irudi izango direnak.

Bataio-urez zirtatzea

Senide maiteok, egin diezaiogun otoitz Jainko geure Jaunari, Pazko gau santuan bedeinkatu genuen ura Bataioaren oroipenez geure burua zirtatzeko erabiltzera goazen honetan. Ur honek berrizta gaitzala, hartu dugun Espirituari beti leial izan gakizkion.

Ura bedeinkatu nahi bada, ikusi otoitza Meza-liburuko 1286. orrian.

Kantu egoki bat kantatuz, herria zirtatuko du apaizak.

Jainko ahalguztidunak garbi gaitzala bekatutik eta, Eukaristia honen bidez, bere erreinuko mahaian jartzeko gai egin gaitzala.

℟. Amen.

Erruki, Jauna. ✠. Erruki, Jauna.
Kristo, erruki. ✠. Kristo, erruki.
Erruki, Jauna. ✠. Erruki, Jauna.

Aintza zeruetan

Kanta dezagun aintzazko gorazarrea, gure alde otoitz egiteko Aitaren eskuin aldean dagoen Jesu Kristo Jaunari dei eginez.

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
eraman gaitzazu zeruko pozetan partaide izatera, fededunen
artalde apal hau hel dadin
beraren artzaina, heriotza garaiturik, iritsi den ospera.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ✠. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Gizakia Jainkoaren Hitzaren gose da. Hitz horrek Nazareteko Jesusengan haragi hartu du; gaurko liturgiak, Bildots bezala, aurkezten digu Jesus, baina aldi berean Artzain ona da bera, ardiengandik bizia ematen duena. Entzun dezagun arretaz.

Lehenengo irakurgaia (Eg 13, 14. 43-52)

Apostoluen Eginak liburutik

Egun haietan, Paulo eta Bernabe Pergetik Pisidiako Antiokiara joan ziren. Eta larunbatean sinagogan sartu ziren eta han eseri.

Judu askok eta Jainkoa gurtzen zuten judu berri askok Paulori eta Bernaberi jarraitu zieten; hauek, beren hitzez, Jainkoaren graziari atxikirik irauteko adore ematen zieten.

Hurrengo larunbatean, ia herri osoa bildu zen Jaunaren hitza entzuteko. Jendetza hura ikusirik, juduak bekaitzez bete ziren eta irainka egiten zioten kontra Paulok esaten zuenari. Orduan, Paulok eta Bernabek ausarki esan zuten: «Zuei adierazi behar genizuen lehendabizi Jainkoaren hitza; baina hitza baztertu eta zeuen buruak betiko bizirako gai ikusten ez dituzuenez gero, jentilengana joko dugu. Hauxe agindu baitigu Jaunak: “Nazioen argitzat ezarri zaitut, salbamena lurraren bazterreraino eraman dezazun”».

Hau entzutean, jentilak poztu ziren eta Jaunaren hitza goresten zuten. Eta betiko bizirako zirenek sinetsi egin zuten.

Jaunaren hitza zabaltzen ari zen herrialde hartan guztian. Baina juduek andre handiki jainkozale batzuk eta herriko jauntxoak berotu zituzten, Pauloren eta Bernaberen kontra erasoaldia sortu zuten eta beren lurraldetik bota zituzten. Paulo eta Bernabe, protesta gisa beren oinetako hautsa haien aurka astindu eta Ikoniora joan ziren. Ikasleak, berriz, pozez eta Espiritu Santuaz beterik gelditu ziren.

Erantzun-salmoa (*Sal* 100 [99], 2. 3. 5)

Jau-na-ri kan - ta, o-na bai - ta, hain du haun-di -

a be - re be - ti - ko e-rru - ki - a.

-1

- ℣. Lurtar guztiok, egin irrintzi **Jaunari**,
zerbitza ezazue Jauna pozaren pozez,
sar zaitezte oihu alaiz haren **aurrera**. ℟.
- ℣. Jakizue Jauna dela **Jainkoa**,
hark egin gaitu, harenak gara,
haren herri eta haren larreko **artalde**. ℟.
- ℣. «Ona baita Jauna,
haren maitasuna betikoka,
haren leialtasuna mendez mendekoka». ℟.

Bigarren irakurgaia (Ap 7, 9. 14b-17)

Apokalipsia liburutik

Nik, Joanek, gizatalde handi bat ikusi nuen, inork ezin konta ahalekoa, nazio eta arraza, herri eta hizkuntza guztietako jendez osatua, tronuaren eta Bildotsaren aurrean zutik, soineko zuriz jantzia eta palma-adarra eskuetan.

Zaharretako batek esan zidan: «Hauek larrialdi handitik datozenak dira. Bildotsaren odolean garbitu dituzte beren soinekoak, eta zuritu. Horregatik daude Jainkoaren tronu aurrean, gau eta egun hari gurtza ematen bere tenpluan, eta tronuan eseria dagoena haiekin biziko da. Ez dira gehiago gose, ez egarri izango, eta ez ditu eguzkiak, ez sargoriak joko, tronuaren erdian dagoen Bildotsak bazkatuko baititu eta ur biziko iturrietara eramango. Eta Jainkoak begietako malko guztiak xukatuko dizkie».

Aleluia (Jn 10, 14)





✕. Ni naiz artzain ona, dio Jaunak;
 ezagutzen ditut neure ardiak,
 eta neureek ezagutzen naute Ni. ✕.

Ebanjelioa (Jn 10, 27-30)

Homiliarako argibideak

JESU KRISTO, ARTZAIN ONA

Irakurgaiak

Elizaren bizitzan, laster agertu ziren Ebanjelioaren mezua unibertsal bihurtzeko lehen arazoak. Apokalipsia liburuko irakurgaia artzain onaren gai nagusiarekin lotuta dago. Jainkoaren eta Jesusen Artzain-irudiak aurrekari asko ditu Itun Zahar osoan. Artzain Unibertsala Jesus hil eta berpiztua da. Bere Aintzatik, Jainkoaren ondotik, betiko bizitzara garamatza.

Mezua

Joanen ebanjelioan, Jesusen bizitza eta misioa estu lotuta daude betiko bizitzarekin. Jesus artzain ona da, bere artzaintza gu betiko bizitzara bideratzea da. Betiko bizitza hau Jainkoa bera da. Jesusek Jainkoarengana garamatza, bera baita Semea. Aitarenetik atera zen, eta, orain, maitasunean eta leialtasunean burututako giza bizitzarekin itzultzen da Aitarengana. Agindutako betiereko bizitza hau, dagoeneko ematen digu. Berarekin Jainkoa ezagutu, maitatu, berarekin bizi, hartaz gozatu, seme-alabek etxean gurasoen maitasunarekin gozatzen duten bezala. Fedeari esker, gure bizitzaren amaiera zer izango den ikus daiteke, Jainkoaren tronuaren inguruan bizirik dauden anai-arreben batzarra, betiko bizitzan, bizikidetza gozo batean. Guztia Jesusen egintzagatik, haren heriotza leialagatik

eta haren piztueragatik. Barne-esperientzia horretatik jaiotzen da kristau-bizitza, barrutik, askatasunez, maitasunez, gozotasunez eta alaitasunez. Kristo berpiztuaren bitartekotza eta betiko bizitzak gudan duen eragina ahaztuta egiten den Jesusen egintzaren eta kristau-bizitzaren edozein interpretazio, interpretazio moztua, pobrea da. Jesus ez da pertsonaia historiko on bat bakarrik. Jesusen lana betiko bizitzarako gu askatzea da, salbatzea da.

Bizitzarako iradokizunak

Pazko garai honetako Eukaristiaren ospakizunek erakusten digute, gure bizitza pertsonala Kristo berpiztuarekiko bizipen espiritual eta errealean zentratzearen garrantzia. Ahalegina egin behar dugu Kristorekiko, zeruko Kristorekiko, maitasun-harremanetan bizitzen ohitzeko; izan ere, maitasun-harremanean egiten zaigu presente, Eukaristian egiaz presente eta eragile dagoen Jesus bera. Nazareteko Jesusi buruz hitz egin dezakegu, edo zoriontasunetako Kristori buruz, gure fedearen errealismoa azpimarratzeko, baina nagusiki Kristo berpiztuaz hitz egin behar dugu, hartan baino ez baitira existitzen bere bizitzako une eta egoera ezberdinak. Kristo berpiztuarekiko bizitzatik, ikuspegi egokia hartzen dugu bizitza honetako gauzak beren benetako balioan ikusteko. Mina eta zoriona, bizitza eta heriotza, gure bizitza osoa piztueraren egiatik baloratu eta bizi behar dugu. Hau da Kristok fedearen bidez, sakramentuen bidez, salbazioaren bizitza berriagatik ematen digun bizi-osotasuna. Horregatik esan dezakegu garai bete-betean bizi garela. Misio herrietako apaizen alde eta bokazioen alde otoitz egiteko eguna da hau. Egun ona gure apaizen alde otoitz egiteko eta Jainkoari bokazioaren dohaina eskertzeko.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: gure begiak Kristori, gure arimen artzain dugunari zuzendurik, jar ditzagun Haren eskuetan konfiantza osoz, gizakien beharrak:

Erantzuna: **Entzun Zuk, Kristo, herri honen oihua!**



En - tzun, Zuk Kris - to, he - rri ho - nen oi - hu - a.

- Gotzainek, apaizek eta diakonoek zintzo zain dezaten beren eskuetan jarriak izan diren kristau elkarteak. Egigun otoitz.
- Era guztietako bokaziodunen alde: jakin dezatela Berari jarraitzera erruki-begiradaz deitu zien Jaunari erantzuten. Egigun otoitz.
- Jesu Kristok ikasleei emandako bakea gure munduan errotu dadin eta herri guztietatik alden daitezen gorrotoak eta gerra guztiak. Egigun otoitz.
- Gaixoeak, behartsuek eta sufritzen duten guztiek Kristo piztuarengan aurki ditzaten argia eta itxaropena. Egigun otoitz.
- Jainkoak kristau familietan sakonera begira jartzen gaituen Espiritua isur dezan, elizaren ministeritza ezberdinetarako bokaziodunak erne daitezen. Egigun otoitz.

Jainko Jauna, Aita ahalguztiduna, ezinduari osasuna ematean Kristo piztuaren argia ikusarazi zenuen; batu itzazu zeure familia bakarrean bekatuak sakabanatzen dituen gizakiak, eta egizu, Zure artaldeko kide izateaz poztu daitezela Kristo, Artzain onarekin bat eginik. Errege bizi baita, hilezkor eta aintzatsu, gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gaineko otoitza

Eskerrak ematen dizkizugu beti, Jauna,
pazko-misterio honengatik;
egizu, etengabe gertaberritzen ari zaren gure erospenak
ekar diezagula betiereko poza.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *Rx*. Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Artzain Ona, zaindu maitasunez zeure artaldea;
eta eraman betiko larre gurietara
zeure Semearen odol baliotsuaz salbatu dituzun ardiak.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *Rx*. Amen.

Bedeinkapen nagusia (*Ikus liburuxka honetako 20. orrialdean*)

Maiatzaren 18an **V. PAZKO IGANDEA**

Agurra

Heriotzaren lokarriak etenik Jesu Kristo berpiztu duen Jainko bizi-emailea izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Maitasuna, bakea eta barkamena piztueraren haziak dira, Espiritua presente egiten denaren ezaugarri. Gaur, era berezian Jesusen agindu nagusiari begiratuko diogu: “maita ezazue elkar”. Horrexek pozten gaitu eta indartzen.

Ospa dezagun maitasun eskaintza gorena den Eukaristia.

Bataio-urez zirtatzea

Senideok: Eukaristia ospatzera goaz; Bataiokoan bat egin genuen era berezian Kristo Piztuarekin eta berak bildu gaitu gaur bere mahaian. Geure Bataioa oroitzuz bat egin dezagun Jainkoarekin.

Herria zirtatuko du apaizak elizan barrena ibiliz.

Bitartean kantu egokiren bat kanta daiteke.

Jainko ahalguztidunak garbi gaitzala bekatutik eta, Eukaristia honen bidez, bere erreinuko mahaian jartzeko gai egin gaitzala.

℟. Amen.

Erruki, Jauna. ℟. Erruki, Jauna.

Kristo, erruki. ℟. Kristo, erruki.

Erruki, Jauna. ℟. Erruki, Jauna.

Aintza zeruetan

Kanta dezagun aintzazko gorazarrea, gure alde otoitz egiteko Aitaren eskuin aldean dagoen Jesu Kristo Jaunari dei eginez.

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
burutu ezazu gugan beti pazko-sakramentua,
Bataioaren bidez biziberritu dituzunak
zure laguntza eta babesari esker fruitu ugari eman dezaten;
eta egizu, betiko biziaren zorionera hel daitezela.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *Rx*. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Lehen kristau elkarteak, Pazkoaren esperientziaz nola sortu ziren ikusten dugu igandez igande aldi honetan. Ikus ditzagun geure elkarterako beharrezko ditugun jarrerak zeintzuk diren.

Lehenengo irakurgaia (Eg 14, 21b-27)

Apostoluen Eginak liburutik

Egun haietan, Paulo eta Bernabe Listrara, Ikoniora eta Antiokiara itzuli ziren. Bidenabar, ikasleen bihotzak sendotzen zituzten, sinesmenean irauteko adore emanez. «Larrialdi asko jasan behar dugu –esaten zieten– Jainkoaren erreinuan sartzeko». Eliz elkarte bakoitzean arduradunak izendatu zituzten eta, otoitz eta barau egin ondoren, Jaunaren eskuetan utzi zituzten, harengan sinetsi baitzuten.

Pisidian zehar, Panfiliara iritsi ziren eta, Pergen hitza hots egin ondoren, Ataliara jaitsi ziren. Han ontzia hartu zuten Siriako

Antiokiara joateko, handik bidaliak baitzituzten burutu berria zuten egitekorako, Jainkoaren ardurapean jarri ondoren.

Iritsi zirenean, eliz elkarteak bildu zuten eta Jainkoak beraien bidez egindako guztia azaldu zieten, baita jentilei federako atea nola ireki zien ere.

Erantzun-salmoa (Sal 145 [144], 8-9. 10-11. 12-13b)



- ✠. Errukiorra eta bihozbera **da** Jauna,
haserregaitza eta onginahiz **betea**.
Ona da Jauna guz**tientzat**,
gupidaz betea bere sorkari guz**tientzat**. ✠.
- ✠. Gorets zaitzatela, Jauna, zeure sorkari **guztiek**,
bedeinka zeure fed**edunek**;
aipa bezate zure erregetza osp**etsua**,
mintza bitez zure **ahalmenaz**. ✠.
- ✠. Gizakiei agertuz zure egite **ahaltuak**,
zure erregetza ospetsuaren bikaint**asuna**.
Zure erregetza betiko **erregetza**,
mendez mendekoa zure nag**usitza**. ✠.

Bigarren irakurgaia (Ap 21, 1-5a)

Apokalipsia liburutik

Nik, Joanek, zeru berria eta lur berria ikusi nituen, desagertuak baitziren lehenengo zerua eta lehenengo lurra, eta itsasorik ere ez zen.

Hiri santua ikusi nuen, Jerusalem berria, zerutik Jainkoagandik jaisten, andregaia bere senarrarentzat bezala apaindua. Eta ahots handia entzun nuen tronutik esaten: «Hona Jainkoaren bizilekua gizakien artean; haiekin biziko da. Haiek izango ditu bere herri, eta Jainkoa bera izango dute haiek berekin.

Begietako malkoak xukatuko dizkie, eta ez da gehiago heriotzarik izango, ez dolurik, ez negarrik, ez nekerik, lehengo mundua desagertua baita».

Eta tronuan eseria zegoenak esan zuen: «Hara, gauza guztiak berri egiten ditut».

Aleluia (*Jn 13, 34*)



Al-le - lu-ia, al-le - lu-ia, al-le - lu-ia, al-le - lu - ia.



✠. Agindu berria ematen dizuet, **di**o Jaunak:
maita dezazuela **la** elkar,
Nik maite izan zaituztedan **be**zala. ✠.

Ebanjelioa (*Jn 13, 31-33a. 34-35*)

Homiliarako argibideak

GIZARTE BERRI BAT

Irakurgaiak

Apostoluen Eginak irakurrita, elkartearen lehen urratsei jarraitu ahal izango diegu, Jaun piztuarekiko fedeak bildu, bizi eta eragindako elkarte izateko. Apokalipsia liburuak Jainkoak mundua salbatzeko egiten duen esku-hartzea erakusten digu. Ikuspegi horrek itxaropenari eusten dio eta kristauen bizitza aldatzen du. Ebanjelioan ematen zaigu gakoa berritasun hori zer den ulertzeko, nondik sortzen den Jainkoak ematen digun, eta guk, haren graziaz, eraiki behar dugun mundu berria.

Mezua

Jesus ez da profeta espiritualista, urrutiko eta gurekin arretarik ez duena. Jesusen sakrifizioari eta piztuerari esker, Jainkoak kreazio osoa berritzen du, pertsonen barnetik hasita. Pertsona berrituek beren harremanak izateko, maitatzeko, lan egiteko, bizitzako gertaerak eta munduko gauza guztiak ikusteko eta baloratzeko modua aldatzen dute. Bizitza berri hau maitasuna da, maitasun unibertsala, doakoa, eraginkorra, Espirituaren ekintzaren emaitza, eta gauza guztiak berritzeko indar fidagarria du. Horixe da berritasuna, elkar maitatzea Jainkoak maite gaituen bezala, Jainkoak Kristoren maitasunean, bizitzan, heriotzan eta piztueran adierazi digun maitasunarekin. Horretan izan behar dugu bereziak, horretan bereizi behar gaituzte, antzeman behar dute Jesusen jarraitzaile garela. Bizi berrituaren lekukotza honetan datza predikazioaren indarra eta gure hitzaren sinesgarritasuna. Kristauak maitasun zintzoan eta behartsu guztiei zerbitzu eskuzabalean lehenak bagara, gure testigantzak eta Elizaren irakaskuntzek indar paregabea izango dute.

Bizitzarako iradokizunak

Pazko garai honetan bizitzarekin Jaun berpiztua goستن saiatu behar dugu, sinesten dugun Jesusen piztueraren egia eta edertasuna aldarrikatu. Gure otoitzean gogoan izateko eta Igandeko

Jainkoaren herriaren otoitza

Erantzuna: Entzun Zuk, Kristo, herri honen oihua!



- Kristok, Elizaren senarrak, pazko pozez bete ditzan bere erreinuaren alde diharduten guztiak. Egigun otoitz. $\mathcal{R}$.
- Kristok, egiazko giltzarriak, ebanjelioaz argi ditzan bere piztueraren berri ona ezagutzen ez duten herri guztiak. Egigun otoitz. $\mathcal{R}$.
- Kristok, egiazko goiz-argiak, atsekabetuen negarrak entzun eta sufritzen duten guztien minak arindu ditzan. Egigun otoitz. $\mathcal{R}$.

—Kristok, egiazko testiguak, lagun diezagula ebanjeliozko-pozez, bere heriotzaren garaipena ezagutzen ez dutenentzat osasun eta argi izaten. Egigun otoitz. *R̃x*.

Jainko Jauna, Kristorekin bat egin gaituzu egiazko mahatsondoaren ahienak bezala; entzun gure otoitzak eta emaguzu Zure Espiritu Santua, elkar maitatuz santutasun eta bakezko fruituak eman ditzagun. Zure Seme Jesu Kristoren bitartez, errege bizi baita, hilezkor eta aintzatsu, gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gaineko otoitza

Oi Jainko, sakrifizio honetako harreman miragarriei esker, zeure jainkotasun bakar eta gorenean parte izateko grazia ematen diguzu; egizu, sinesten dugun egia egintzetan aitor dezagula. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̃x*. Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Zaude beti, Jauna, zeure herriarekin, eta zerutar misterioak ezagutarazi dizkiezunei emaezu, beren izate zaharra utzirik, jainkozko bizi berriaren erara bizitzea. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̃x*. Amen.

Bedeinkapen nagusia (*Ikus liburuxka honetako 20. orrialdean*)

Maiazaren 25ean
VI. PAZKO IGANDEA

Gaixoen Mundu Jardunaldia

Agurra

Heriotzaren lokarriak etenik Jesu Kristo berpiztu duen Jainko bizi-emailea izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Jesu Piztuari begiratzeak, gizakiaren bihotzera begiratzen laguntzen digu. Gaur hain zuzen, Gaixoen mundu jardunaldia dugularik, ahulen, sufritzen dutenen bihotzera begiratzen ikasi nahi dugu: jakin dezagula txiki eta apalekin gertuko izaten eta jasoko dugu haiengandik poza, onarpena, bizitzaren aurrean behar den askatasuna... hitz batean Jesusen Espiritua..

Bataio-urez zirtatzea

Senideok: Eukaristia ospatzera goaz; Bataiokoan bat egin genuen era berezian Kristo Piztuarekin eta berak bildu gaitu gaur bere mahaian. Geure Bataioa oroitzuz bat egin dezagun Jainkoarekin.

Herria zirtatuko du apaizak elizan barrena ibiliz.

Bitartean kantu egokiren bat kanta daiteke.

Jainko ahalguztidunak garbi gaitzala bekatutik eta, Eukaristia honen bidez, bere erreinuko mahaian jartzeko gai egin gaitzala.

℟. Amen.

Erruki, Jauna. ℟. Erruki, Jauna.

Kristo, erruki. ℟. Kristo, erruki.

Erruki, Jauna. ℟. Erruki, Jauna.

Aintza zeruetan

Gora dezagun elkarrekin kantatuz, biziaren sortzaile dugun Jainkoa.

Otoitza

Jainko ahalguztiduna,
hilen artetik piztu den gure Jauna goresteko
gogotsu ospatzen ditugu egun pozgarri hauek;
egizu, oroigarri horietan aitortzen duguna
bete dezagula beti geure egintzetan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *℟*. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jesus, Piztu ondoren Aitarengan bizi da. Ez digu karga handirik ezarri, ez gaitu legez bete... Espiritua ematen digu Maitasunaren askatasunaz bizi gaitezen beti.

Lehenengo irakurgaia (*Eg 15, 1-2. 22-29*)

Apostoluen Eginak liburutik

Egun haietan, Judeatik Antiokiara jaitsi ziren batzuk irakaspen hau ematen hasi ziren hango senideei: «Moisesengandiko usadioaren arabera erdaintzen ez bazarete, ez zaitezketen salbatu». Hori zela eta, iskanbila sortu zen, eta Paulok eta Bernabek eztabaida gogorra izan zuten haiekin. Orduan, Paulo, Bernabe eta beste batzuk Jerusalemara igo zitezela erabaki zuten, apostoluekin eta arduradunekin auzi hori argitzera.

Apostoluek eta arduradunek, eliz elkarte osoarekin batera, beren arteko batzuk aukeratu eta Paulo eta Bernaberekin Antiokiara

bidaltzea erabaki zuten. Barsaba deituriko Judas eta Silas aukeratu zituzten, senideen artean itzal handiko gizonak biak, eta gutun hau eman zieten eramateko:

«Anaia apostoluek eta arduradunek Antiokia, Siria eta Ziliziako jentil-herrietako senideoi, agur! Jakin dugu gure arteko batzuek, guk agindu gabe, beren hitzez kezkatu eta nahastu zaituztetela. Horregatik, ordezkari batzuk aukeratzea erabaki dugu aho batez eta zuengana bidaltzea, Bernabe eta Paulo geure senide maiteekin, beren burua Jesu Kristo gure Jaunaren zerbitzuan eman duten horiekin. Hor bidaltzen dizkizuegu, bada, Judas eta Silas, hau bera ahoz jakinaraz diezazueten. Espiritu Santuak eta guk erabaki dugu zuei zamarik ez ezartzea, behar-beharrezko diren hauek izan ezik: ez dezazuela jan sasi-jainkoei eskainitako haragirik, ez odolik, ez odolustu gabeko abererik, eta utz ditzazuela legearen kontrako haragi-harremanak. Ondo egingo duzue horrelakoetatik alde egiten baduzue. Izan ongi».

Erantzun-salmoa (*Sal* 67 [66], 2-3. 5. 6 eta 8)



- ✠. Erruki bekigu Jainkoa eta bedeinka **gaitz**ala, ager diezagula aurpegi **argi**a, ezagut dezaten munduan zure **bide**a, nazio guztietan Zugandiko sal**ba**mena. ✠.
- ✠. Poztu bitez kantari na**zi**oak, zuzentasunez baitituzu gobernatzen **herri**ak eta gidatzen munduan na**zi**oak. ✠.

Ÿ. Ene Jainko, aipa zaitzatela **herriek**,
aipa zaitzatela herri **guztiek**.
Bedeinka gaitzala **Jainkoak**,
izan diezaiola begirune mundu **osoak**. Ẁ.

Bigarren irakurgaia (Ap 21, 10-14. 22-23)

Apokalipsia liburutik

Ni, Joan, hartu ninduen aingeruak eta mendi handi eta garai batera eramanez ninduen espirituz; Jerusalem hiri santua erakutsi zidan, zerutik Jainkoagandik jaisten, Jainkoaren aintzaz dirdaitsu. Haren distira harribitxi eder baten antzekoa zen, jaspe harria bezain gardenena.

Harresi sendo eta garaia zuen, hamabi atekoa, eta ate gainetan hamabi aingeru eta hamabi izen idatziak, israeldarren hamabi leinuen izenak. Hiru ate ekialdera zeuden, hiru iparraldera, hiru hegoaldera eta hiru mendebaldera. Hiriko harresiak hamabi oinarri zituen, eta hauetan idatziak Bildotsaren hamabi apostoluen izenak.

Ez nuen inolako tenplurik ikusi, zeren Jauna Jainko ahalguztiduna eta Bildotsa baitira hango tenplu. Hiriak ez du behar argituko duen eguzkirik nahiz ilargirik, Jainkoaren aintzak baitu argitzen, eta Bildotsa du argiontzi.

Aleluia (Jn 14, 23)



℟. Ni maite nauenak gordeko du nire hitza, dio Jaunak;
nire Aitak maite izango du,
eta Aita eta biok harengana etorriko gara. ℟.

Ebanjelioa (*Jn 14, 23-29*)

Homiliarako argibideak

EZ BEDI GURE BIHOTZA BELDURTU

Irakurgaiak

Bi irakurgaiak eta ebanjelioak Elizaren garapen historikoa eta izaera sakona deskribatzen dute. Eginen liburuko testuak ebanjelioaren iragarpenean eta kristau-berritasunaren praktikan ikasleen artean agertu ziren lehen zailtasunak kontatzen dizkigu. Apostoluek eztabaidatu eta erabaki egin behar dute. Baina beren erantzukizun apostolikoetan Espiritu Santuak lagundu eta gidatzen ditu. Apokalipsia liburuak bere erara deskribatzen ditu gizateria berriaren mirariak, hamabi apostoluen lekukotza eta Jainkoaren ondoan dagoen Bildotsaren sakrifizioa dira mirari horren oinarri. Joanen ebanjelioko testua agur-hitzaldikoa da, eta Jesusen Elizaren barruko sekretuak erakusten dizkigu. Jesus joan egingo da, baina gurekin geratzen da, Espiritu Santuak Jainkoaren seme-alaben egoera berrian bizitzen laguntzen digu. Hirutasun santua gudan dago, eta maitasunaren eta betiereko bizitzaren komunioan Berekin bizitzeko gaitasuna ematen digu.

Mezua

Pazko-garaiko eukaristietako ideia nagusia da Elizaren berritasuna modu desberdinetan eta azentu desberdinekin aurkeztea da, Jesusen piztueraren ondoren pixkanaka sortzen ari baita. Eliza denboran jaio bazen, gure bizitzako egun guztietan jaio eta hazi behar du espiritualki. Ezinen eta zailtasunen gainetik fedea bizitzea da kontua.

Zerutik, Jesus berpiztuak bere promesa betetzen du, Jainkoaren promesa handia: Jainkoaren Espirituaren barne-dohaina ematen digu. Espiritu hori bizi-printzipio bat da, modu desberdinean bizitzeko gai egiten gaituena, benetako seme-alaben konfiantzarekin eta maitasunarekin, pixkanaka mundu berri bat eraikiz, santuen antz handiagoa duena gure grina eta nahien mundu zaharrak baino gehiago. Eliza hazten doa zailtasunen artean ere, itsumustuka bada ere sumatzen dituen fedearen eta itxaropenaren argiekin. Espirituak eusten eta gidatzen du Eliza, mundu berriaren iragarpen eta sakramentu izan dadin, gure mundua etorkizuneko munduarekin lotuz, santuen munduarekin, dagoeneko gure artean den Erreinuarekin.

Bizitzarako iradokizunak

Saia gaitezen Pazko igande hauek aprobetxatzen Jesusen piztueraz gure fedea indartzeko, gure piztueraren itxaropena, bizitza benetan desberdin baten hasiera izan dadin. Elizari buruz dugun ikuspegia ere aberastu dezakegu. Batzuetan, hari buruz hitz egitean, azaleko pasadizoetan eta egunkarietako iruzkinetan geratzen gara. Eliza, batez ere, gurekin bat egiten duen Jainkoaren misterioa da, Kristoren heriotzaz eta piztueraz berritua eta Espirituaren indarrez aberastua, eta guretzat bizi berriaren iturri bihurtu den Jainkoaren hortzemuga amaiezina zuzentzen gaituena. Hortik aurrera, esker onez eta obedientziaz, inolako beldurrik gabe bizitzeko ausardia izango dugu, Eliza Amaren baitan, Jesu Kristoren Gorputzean eta Familia Santuan.

Jainkoaren herriaren otoitza

Zuzen diezazkiogun gure otoitzak Aitari, beti gure alde ari den Kristorekin bat eginik:

Erantzuna: **Entzun Zuk, Kristo, herri honen oihua!**



En - tzun, Zuk Kris - to, he-rri ho - nen oi-hu - a.

- Hilik egon ondoren, orain betirako bizi denak, eman diezaiola Elizari sendotasun eta ausardiaz Bere piztueraren testigu izatea. Egigun otoitz. *℟*.
- Apostoluei bere bakea eman zien Jaun Piztuak, eman diezaiela bake bera herrialde guztiei. Egigun otoitz. *℟*.
- Heriotza garaitu zuenak, bihur dezala gaixoen, hilzorian daudenen eta ezinean dauden guztien nekea, inork kenduko ez dien egiazko poz. Egigun otoitz. *℟*.
- Zeruko erreinuaren giltzak dituenak, eman diezagula egunen batean bere piztuera zeruko mahaian ospatzea. Egigun otoitz. *℟*.

Jainko Jauna, Zuk maitatu gaituzu gu lehenengo Zure Semea bidaliz, Berari esker bizi gaitezen; entzun gure otoitzak eta egizu, Espiritu Santuaz beterik, ikas dezagula elkar maitatzen Kristok maitatu gaituen bezala. Errege bizi baita, hilezkor eta aintzatsu, gizaldi eta gizaldietan.

Oparigaien gaineko otoitza

Igo bitez Zugana, Jauna, gure otoitzak eta opari-eskaintzak,
zure errukiak garbiturik,
zure maitasunaren sakramentuak hobeto ospa ditzagun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
betiko bizirako sortu gaituzu Kristoren piztueran;
ugari itzazu gugan pazko-sakramentuaren fruituak
eta isuri gure bihotzera janari salbagarri honen indarra.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

Bedeinkapen nagusia (*Ikus liburuxka honetako 20. orrialdean*)

Ekainaren 1ean
JAUNAREN IGOKUNDEA

Gizarte komunikabideen Mundu Jardunaldia

Agurra

Heriotzaren lokarriak etenik Jesu Kristo berpiztu duen Jainko bizi-emailea izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Jaunaren Igokundea ospatzen dugu gaur. Gaurkoa dugu Pazkoko beste gertaera nagusia: Jesus Aitarengana goratua ikusten dugu, aintzatsu eta garaile. Kristorengan gertatua gertatzen zaigu: geure pozetan eta minetan altxatuak, piztuak, suspertuak gertatzen gara.

Egun honetan Gizarte komunikabideen Mundu Jardunaldia ere ospatzen da. Otoitzean gogoan izan ditzagun komunikabide munduan lan egiten duten guztiak, egiaren aitorle izan daitezen; eta, bereziki, komunikabide kristauetan dabiltzanek, Ebanjelioa hots egin dezatela, Elizaren batasuna jorratuz.

Bataio-urez zirtatzea

Senideok: Eukaristia ospatzera goaz; Bataiokoan bat egin genuen era berezian Kristo Piztuarekin eta berak bildu gaitu gaur bere mahaian. Geure Bataioa oroitzu bat egin dezagun Jainkoarekin.

Herria zirtatuko du apaizak elizan barrena ibiliz.

Bitartean kantu egokiren bat kanta daiteke.

Jainko ahalguztidunak garbi gaitzala bekatutik eta, Eukaristia honen bidez, bere erreinuko mahaian jartzeko gai egin gaitzala.

℟. Amen.

Erruki, Jauna. ✠. Erruki, Jauna.
Kristo, erruki. ✠. Kristo, erruki.
Erruki, Jauna. ✠. Erruki, Jauna.

Aintza zeruetan

Kanta dezagun aintzazko gorazarrea, gure alde otoitz egiteko Aitaren eskuin aldean dagoen Jesu Kristo Jaunari dei eginez.

Otoitza

Jainko ahalguztiduna, zure Seme Jesu Kristoren Igokundea garaipen gertatu da guretzat,
eta haren gorputzeko garenok ziur itxaro dugu,
gure buru denak duen aintza izango dugula geuk ere;
egizu, egia honek bete gaitzala pozez eta esker onez.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ✠. Amen.

Edota:

Jainko ahalguztiduna,
sinesten dugu, zure Seme bakarra, gure Salbatzailea,
zeruetara igo zela gaurko egunez;
egizu, izan dezagula guk ere geure gogoaz zerutar gauzetan.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ✠. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jesusegan, Jainkoaren gudanako asmoa eta Jainkoa bera ikusten dugu. «Zuekin izango naiz beti», gurekin da beti eta itxaropenez bizitzen erakusten digu.

Lehenengo irakurgaia (Eg 1, 1-11)

Apostoluen Eginak liburutik

Teofilo maitea: Neure lehenengo liburuan, hasieratik zerura jasoan izan zen eguna arte Jesusek egin eta irakatsi zuen guztia idatzi nuen. Zerura igo aurretik, Espiritu Santuaren eraginez aginduak eman zizkien berak aukeratutako apostoluei. Jesus apostoluei agertu zitzaizen bere nekaldiaren ostean eta bizirik zegoeneko froga asko eman zien, berrogei egunez bere burua ikustera emanek eta Jainkoaren erreinuaz hitz eginez.

Haiekin bazkaltzen ari zen batean, hau agindu zien: «Ez alde egin Jerusalemdik. Zaudete han Nik Aitaren partetik egin dizuedan agintzaria bete zain. Joanek urez bataiatu zuen; baina zuek Espiritu Santuaz izango zarete bataiatuak egun gutxi barru».

Orduan, bildurik zeudenek galdegin zioten: «Jauna, orain ezarriko al duzu berriro Israelgo erreinua?» Jesusek erantzun zien: «Aitak bakarrik du hori erabakitzeke ahalmena, eta ez dago zuen esku zein aldi edo unetan gertatuko den jakitea. Baina zuen gain jaitsiko den Espiritu Santuaren indarra hartuko duzue, eta nire lekuko izango zarete Jerusalem, Judea osoan, Samarian eta lurraren azken mugaraino».

Hori esanik, gorantz igo zen Jesus haien begi aurrean, hodei batek begietatik ezkutatu zien arte. Oraindik zerura nola zihoan begira-begira zeudela, zuriz jantzitako bi gizaseme azaldu zitzaizkien ondoan, eta esan zieten: «Galilearrok, zertan zaudete hor zerura

begira? Zuen ondotik zerura igo den Jesus hori, zerura joaten ikusi duzuen bezalaxe etorriko da berriro».

Erantzun-salmoa (*Sal* 47 [46], 2-3. 6-7. 8-9)



- ✠. Herri guztiok, jo ezazue txalo,
egin pozez oihu eta irrintzi Jainkoari,
izugarria baita Jauna, Goi-goikoa,
mundu osoaren errege handia. ✠.
- ✠. Irrintzi artean igo da Jainkoa,
turuta-soinuz Jauna.
Kanta Jainkoari, kanta,
kanta gure erregeari, kanta. ✠.
- ✠. Jainkoa da mundu osoaren errege,
kanta trebeki hari.
Jainkoa nazioen errege da,
Jainkoa bere tronu santuan dago eseria. ✠.

Bigarren irakurgaia (*Heb* 9, 24-28; 10, 19-23)

Hebrearrei egindako gutunetik

Kristo ez zen sartu giza eskuz egindako santutegian –egiazkoaren irudi besterik ez zen santutegian–, zeruan bertan baizik, orain Jainkoaren aurrean gure alde agertzeko; eta ez zen sartu bere burua behin eta berriz opari eskaintzeko, apaiz nagusia berea ez duen odolarekin santutegian urtero sartu ohi den bezala; bestela, hil ere

askotan hil behar izango zuen, munduaren hasieratik. Baina ez, Kristo behin bakarrik agertu da orain, azkenak diren garai hauetan, bere buruaren opariaz bekatua ezerezteko.

Eta gizon-emakumeek behin bakarrik hil behar dutela eta gero auzia izango dela erabakia dagoen bezala, halaxe Kristo ere: behin bakarrik izan zen opari eskainia guztien bekatuak kentzeko, eta gero bigarrenez agertuko da, bekatuarekin zerikusirik gabe, beraren zain daudenak salbatzera.

Senideok: Jesusen odolari esker badugu konfiantza santutegian sartzeko, Jesusek bide berria eta bizia ireki baitigu gortinan barna, hau da, bere gorputzean barna. Eta Jesus apaiz gorena Jainkoaren etxeko buru dugunez, hurbil gaitezen bihotz zintzoz eta fede osoz, barrua bekatu-kontzientzia guztitik garbiturik eta gorputza ur garbiz txukundurik.

Iraun dezagun sendo itxaropena aitortzen, hitzekoa baita agintzaria egin duena.

Aleluia (Mt 28, 19a-20b)



℣. Zoazte eta egin herri guztiak nire ikasle,
dio Jaunak,
 eta Ni zeuekin izango nauzue egunero
 munduaren azkena arte. ℟.

Ebanjelioa (Lk 24, 46-53)

Homiliarako argibideak

JESUSEN TESTIGU ETA JARRAITZAILE

Irakurgaiak

Jesusen bizitzaren eta Elizaren garapenaren arteko lotura agertzen du Lukasek. Munduan bere egitekoa bete ondoren, Jesus Aitarengana itzuli da. Eliza, Jesusek munduan duen presentziaren jarraipena eta fruitua da. Hebrearrei idatzitako gutunak Kristoren apaizaren betiereko izaera deskribatzen digu, baita hark gudan duen bitartekotza ahaltsua ere. Lukasen ebanjelioko kontakizunak, beste ebanjelisten kontakizunekin osatua, Jesus zeruetara igotzearen zentzu sakona ematen digu. Jesus berpiztu egin da eta Jainkoaren bizitza misterioz sartzeko, apostoluak, berriz, munduan geratzen dira Jaun ikusiezinen testigu eta bere presentziaren eta bere indar salbatzailearen ezaugarri bizi. Jainkoaren Espirituak zaintzen du Jesusen ekintza ederra, azken eguna arte. Gertakari horien emaitza Elizaren sorrera eta garapena da, Espiritu Santuak santutzen duen Jesusen jarraitzaileen elkartea da Eliza.

Mezua

Garrantzitsua da Jesusen zeruratzek bere egintza osoan duen zerikusiaz ohartzea. Piztueraren ondoren, trantsizio-garai batean, Jesusek, mundu honetan era berezian egonik, nolabaiteko presentzia fisikoa izan du, baina tarteka agertuz, bere jarraitzaileekin, gertatu direnen esanahia ulertzen laguntzeko, haien fedea indartzeko eta berarekin bizitzeko modu berrirako prestatzen laguntzeko. Jesusen zerurako igoera munduan duen presentzia hautemangarriaren amaiera da, eta jarraitzaileak fedearen eta sakramentuen bizimodu berrian txertatzea, Elizaren eta itxaropenaren garaia da orain. Zorionekoak ikusi gabe sinesten dutenak. Bera itzuli arte. Sakramentuek, batez ere Eukaristiak, ordezkatzeko dituzte Jesusen agerpenak, Jesusen eta haren jarraitzaileen arteko topaleku eta

komunikazio bide dira, eta ikasleekin lurrean izan zuen bategitea bezain erreala da Jesusen presentzia.

Bizitzarako iradokizunak

Pazko garai honetan Eukaristia gogo bereziz bizi dezakegu. Garai honetan ez dugu Jesus gorputzeko begiekin ikusten. Fedearen garaia da, ikusi gabe sinestearena. Bera ez dago dagoeneko gure munduan. Jainkoaren mundu ikusezinean dugu zain. Gure fedearen ezinbesteko laguntza apostoluen eta haien oinordekoen testigantza da. Haiek gabe, Jesusekiko lotura historikoa galduko genuke. Oinak ondo lotuta, fedearen lur sendo honetan eta Elizaren lekukotasunean, Kristori eskaini behar diogu gure bihotza, bera baita gure bihotzen erdigunea. Hortik datorkigu Jainkoaren seme-alaben bizitza berria, egian eta maitasunean, Espirituaren ekintzari esker. Eukaristiak da gaur Jesus ikasleei agertzen zaien unea. Gure fedea indartzen dugu, eta Jesusen inguruan senide sentitzen gara. Topaketa horietan indartuta, Jesusen bizitza, bere errukia eta bere salbamen iragarpena luzatzen ditugu mundu honen erdian, bere Erreinua eraikitzen dugu.

Jainkoaren herriaren otoitza

Begira diezaiogun Kristo, gure Apaiz Nagusiari, eta eska diezaiogun lagun diezagula zerutik gizakien aldeko beharretan:

Erantzuna: **Entzun Zuk, Kristo, herri honen oihua!**



En - tzun, Zuk Kris - to, he-rri ho - nen oi-hu - a.

—Kristok, bere aintzaren errege-aulkitik, lagun diezaiola munduaren erdian ari den Elizari, eta lagun diezaien fededunei zeruko ondasunak maitatuz mundukoak erabiltzen. $\mathfrak{R}$.

- Kristok, lurrean jasoa izatean denak berarengana erakarriko zituela agindu zuenak, ager diezaiela bere izena oraindik ezagutzen ez duten guztiei. *Rx*.
- Kristok, bere garaipenaz Aitarekin bat egin gaituenak, bete ditzan itxaropenez era guztietako minak nozitzen dituzten guztiak. *Rx*.
- Kristok, zerura jasoa izan denak, isur dezala guregan Espiritu Santua egiazko zerbitzari izan gaitezen munduaren erdian. *Rx*.

Jainko Aita ahalguztiduna, Kristo Zure Semea piztu duzu eta gauza guztien Jaun egin duzu; emaguzu, fedez eskatu duguna. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gaineko otoitza

Apalki eskaintzen dizugu, Jauna, sakrifizio hau
zure Semearen Igokunde aintzatsua
ospatzen dugun egun honetan;
egizu, misteriozko harreman santu honen bidez,
berarekin batean zerurako piztu gaitezela.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *Rx*. Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
lur honetan bertan
zerutar ondasunetan parte izatea ematen diguzu;
egizu, gure kristau-gogoak jo dezala
gure izatea Zurekin bat egina dagoen leku hartara.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *Rx*. Amen.

Bedeinkapen nagusia

Jauna zuekin. ✠. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitezte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak

Jesus zerura, zuei lekua prestatzera,

igo zen egun honetan. ✠. Amen.

Piztu ondoren ikasleei agertu zitzaaien Jesu Kristo Jauna

mundua epaitzera etorriko denean

ager dakizuela epaile errukitsu. ✠. Amen.

Jesu Kristo Aitaren ondoan jarririk dagoela

sinesten duzue;

pozik senti dezazuela

zuekin ere badagoela azken eguna arte,

berak agindu zuenez. ✠. Amen.

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:

Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak. ✠. Amen.

Zoazte Jaunaren bakean.

✠. Eskerrak Jainkoari.

Ekainaren 8an **PENTEKOSTE IGANDEA**

Agurra

Kristo piztuaren bakea izan bedi zuekin!

Sarrerako oharpena

Gaur, Jesus piztuak Aitarengandik isurtzen digun Espiritu Santuaren etorrera handikiro ospatuz, burutzen ditugu Pazkoko jaiak. Maitasunaren jaia da hau: elkar ulermenaren maitasuna, gure elkarteak eraberritzeko behar dugun Maitasuna, biziaren Maitasuna.

Bataio-urez zirtatzea

Senideok: Eukaristia ospatzera goaz; Bataiokoan bat egin genuen era berezian Kristo Piztuarekin eta berak bildu gaitu gaur bere mahaian. Geure Bataioa oroituz bat egin dezagun Jainkoarekin.

*Herria zirtatuko du apaizak elizan barrena ibiliz.
Bitartean kantu egokiren bat kanta daiteke.*

Jainko ahalguztidunak garbi gaitzala bekatutik eta, Eukaristia honen bidez, bere erreinuko mahaian jartzeko gai egin gaitzala.

℟. Amen.

Erruki, Jauna. ℟. Erruki, Jauna.

Kristo, erruki. ℟. Kristo, erruki.

Erruki, Jauna. ℟. Erruki, Jauna.

Aintza zeruetan

Aitaren eta Semearen arteko dohain den Espirituaren bizi-pozez, gorets dezagun Hirutasun santua Aintza zeruetan kantatuz.

Otoitza

Oi Jainko, gaur ospatzen dugun misterioaren bidez
herri eta nazio guztietan santutzen duzu zeure Eliza osoa;
isur itzazu Espiritu Santuaren dohainak mundu zabalera
eta berri itzazu orain fededunen bihotzean
Ebanjelioa hots egiten hasi zirenean
errukiz egin zenituen mirariak.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *℟*. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jesusen Piztuera bizi izan zuten haiek, Espiritu Santua onartzen dute beren bizitzan. Sakabanatzea eta beldurra, batasun eta bihotz zabal bihurtzen dira, Mezua mundu guztira hots egiteko.

Lehenengo irakurgaia (Eg 2, 1-11)


Apostoluen Eginak liburutik

Pentekoste-eguna iritsi zenean, leku berean bildurik zeuden ikasle guztiak. Bat-batean, haize-bolada indartsu batena bezalako burrunba etorri zen zerutik eta ikasleak zeuden etxe guztia bete zuen. Orduan, suzko mingainak bezalako batzuk agertu zitzaizkien, eta, banatuz, bakoitzaren gainean kokatu ziren. Denak Espiritu Santuaz bete ziren eta hizkuntza arrotzez hitz egiten hasi, bakoitza Espirituak eragiten zion bezala.

Bazen egun haietan Jerusalem judu jainkozalerik asko, zerupean diren herri guztietakoak. Burrunba hura entzutean, jendetza handia bildu zen eta txunditurik gelditu ziren, nork bere hizkuntzan hitz egiten entzuten baitzien.

Harri eta zur, honela zioten: «Mintzo direnok, ez al dira guztiak galilearrak? Nola entzuten diegu, bada, bakoitzak geure jatorriko hizkuntzan? Gure artean badira partiarak, mediarak eta elamdarrak; baita Mesopotamian, Judean, Kapadozian, Ponton eta Asian bizi direnak ere; badira Frigiakoak eta Panfiliakoak, Egiptokoak eta Zirene inguruko Libiakoak, baita erromatarak ere; eta denok, judu nahiz judu berri, kretar nahiz arabiar, geure hizkuntzan entzuten diegu Jainkoaren egintza harrigarriak hots egiten».

Erantzun-salmoa (*Sal* 104 [103], 1ab eta 24ac. 29b-30. 31 eta 34)



- ✧ Bedeinka beza nire ar**mak** Jauna!
 Jauna, ene Jainkoa, bai handia za**re**la!
 Bai ugariak, Jauna, Zuk e**gin**ak!
 Zure sorkariz betea da**go** lurra. ✧
- ✧ Zuk arnasa kendu, eta hil e**giten** dira,
 hauts izatera i**tzult**zen.
 Zuk arnasa bidali, eta berriro sort**zen** dira,
 berritu egiten duzu **lur**bira. ✧
- ✧ Izan bedi betiko Jaunaren **os**pea!
 Poztu bedi Jauna bere e**gin**etan!
 Atsegin bekio n**ire** kanta,
 Jaunagan izango dut neure**re** poza. ✧

Bigarren irakurgaia (Erm 8, 8-17)

San Paulo Apostoluak Erromatarrei egindako gutunetik

Senideok: Grina txarren menpean bizi direnak ezin izan gogoko Jainkoari. Zuek, ordea, ez zarete grina txarren menpean bizi, Espirituaren menpean baizik, Jainkoaren Espiritua zuengan bizi baita.

Norbaitek Kristoren Espiritua ez badu, hori ez da Kristorena. Kristo zuengan baldin badago, berriz, gorputza bekatuagatik hilik egon arren, espirituak badu bizia Jainkoaren salbamen-indarrari esker. Jesus hilen artetik piztu zuen Jainkoaren Espiritua zuengan bizi bada, Kristo hilen artetik piztu zuenak berak bizi-araziko du zuen gorputz hilkorra ere, zuengan bizi den Espirituaren bitartez.

Zorretan gaude, baina ez grina txarrekin, horien arabera bizitzeko. Horrela bizi bazarete, hil egingo zarete; baina Espirituaren bidez giza egintza gaiztoei uko egiten badiezue, biziko zarete.

Jainkoaren Espirituak gidatzen dituenak, horiexek dira Jainkoaren seme-alaba. Zuek ez duzue hartu esklabo egiten zaituzten espiritua, berriz ere beldurrez bizitzera eramango zaituzten espiritua; seme-alaba egiten zaituzten Espiritua hartu duzue zuek, eta Espirituaren bidez «Abba!», hau da, «Aita!» hots egiten diozue Jainkoari.

Espiritu berberak gure espirituarekin bat egiten du Jainkoaren seme-alaba garelako aitortzeko; eta, seme-alaba bagara, baita oinordeko ere, Jainkoaren oinordeko eta Kristoren oinordekide; zeren, nekeetan Kristoren kideko baldin bagara, aintzan ere haren kideko izango baikara.

Aleluia





✠. Zatoz, Espiritu Santu,
 bete ezazu zeure fededunen **bi**hotza,
 eta piztu haiengan zeure maite-sua! R

Ebanjelioa (*Jn 20, 19-23 edota Jn 14, 15-16. 23b-26*)

Homiliarako argibideak

JAINKOAREN FAMILIAN BARNERATU

Irakurgaiak

Irakurgaiek lotura estua dute elkarren artean. Apostoluen Eginak liburutik gertatutakoaren kontakizuna jasotzen dugu, soiltasunez eta errealdismoz beteak. Pauloren testuak Espiritu Santuaren dohaintza agertzen digu esperientzia pertsonalaren eta komunitarioaren ikuspuntutik. Jesusen agur-hitzaldiaren ebanjelio zatiak, aurreko igandeetan bezala, Espiritu Santuaren ekintzaren errealitate sakona erakusten digu. Merezi du irakurri eta baloratzea, bata besteen argitan. Elizaren bihotzera jotzen ari gara, kristau gisa dugun bizitzaren sakonenera.

Mezua

Egun hauetako jaiek Jesusen piztueraren indarrez munduak eta gure bizitzak duten egoera berria aurkezten digute,. Ikasle taldeak, Jesusen Amaren ondoan bildurik eta haren fedeari eta amamaitasunaz inguraturik, Espirituaren dohaina jaso zuen. Jesusen heriotza salbatzailearen fruitu da hori, promesa guztien betetzea, Hirutasun santuarekin erabat bat egitea, munduaren azkena arte iraungo duen misio handiaren hasiera. Espiritu Santuaren dohaintza Jainkoaren besarkada da, Aitak galdutako semeari emandako besarkada, gizakiak Jesusekin Jainkoaren familian sartzea. Horixe da kristautasunaren misterio ederra. Jainkoaren egintza burutzen da,

Bizitzarako iradokizunak

Jainkoaren herriaren otoitza

Erantzuna: Entzun Zuk, Kristo, herri honen oihua!



En - tzun, Zuk Kris - to, he-rrí ho - nen oi-hu - a.

- Aitaren eskuinaldean dagoen Jesus Jaunak, isur dezan ugari Elizarengan Espiritu Santua. Egigun otoitz. *R̃*.
- Espiritu Santuaren argiak, uxa ditzan gizakien ilunak, eraman ditzan egia ezagutzero, eta bihur dezan gorrotoa maitasun, sufrimentua poz, eta indarkeria bake. Egigun otoitz. *R̃*.
- Espiritu Santuaren indarrak sendo ditzala bihotz-berritzearen bidean ahul bizi direnak. Egigun otoitz. *R̃*.
- Jakinduriaren Espirituak murgil gaitzala Jainkoaren misterioan eta Kristok irakatsi diguna etengabe gogoratuz sendo dezala gure fedea. Egigun otoitz. *R̃*.

Entzun, Jainko Ahalguztidun, Aita-maitasunez, herri honen otoitzak, pozik jaso baitu lehen-dohain bezala hitz emandako Espiritu Santua. Zurekin eta Zure Semearekin errege bizi dena gizaldi eta gizaldietan.

Eukaristiaren liturgiari oharpena

Jainkoaren Hitzak iragartzen duena Eukaristiaren mahaian gertatu egiten da. Espiritu Santua eskatuko dugu orain ere eta Aitak isuriko du elkarte honetara, Jesusen gurutzeko eskaintza aldare honetan gertaberritzerakoan.

Oparigaien gaineko otoitza

Jauna, Espiritu Santuak ager diezagula argiago sakrifizio honen misterioa, zure Semeak hitzeman bezala, eta eraman gaitzala, bihotz onez, hark agertutako egia bete-betean ezagutzero Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *R̃*. Amen.

Jaunartze-ondorengo otoitza

Zuk ematen dizkiozu Elizari, Jauna, zeruko dohainak;

zaindu ezazu beragan Zeuk emandako grazia;
indarberri ditzala gudan beti Espiritu Santuak
berak guri emandako dohainak,
eta hartu dugun janari santuak
eraman gaitzala salbamenaren betera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

Bedeinkapen nagusia

Jauna zuekin. *℟*. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitezte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

Argi guztien Aita den Jainkoak
ikasleen gogoak argitu zituen gaurko egunez
Espiritu Santua isuriz;
poztu zaitzatela bere bedeinkapenaz
eta aberastu bere Espirituaren dohainez. *℟*. Amen.

Ikasleen gainera harrigarriro agertu zen suak
garbi ditzala zuen bihotzak gaitz guztietatik
eta edertu bere argiaren distiraz. *℟*. Amen.

Hainbeste eratako jendea
federe beraren aitormenean bat egin zuen Espiritu Santuak
gorde zaitzatela fede berean,
eta orain zuentzat itxaropen dena
gerta dakizuela egunen batean egiazko ikuskizun. *℟*. Amen.

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak. *℟*. Amen.

Zoazte Jaunaren bakean, aleluia, aleluia!
℟. Eskerrak Jainkoari, aleluia, aleluia!

ERANSKINA

Nahi bada egitekoa.

PENTEKOSTE IGANDEA

Pazko-zuzia itzaltzea

Jaunartze ondorengo otoitza bukatutik, oraindik piztua dagoen pazko-zuzira hurbilduko da apaiza eta, argiaren liturgia prestatzeko, sarrera labur bat egingo du, honelatsu:

Apaizak: Senideok, Pazkoaldiko denbora pozgarriari, hau da, berrogeita hamar egunez luzatu den egunari, bizia eman dion gau hartan, gure argia Kristo dela aldarrikatu genuen, pazko-zuzia pizterakoan. Bidelagun izan dugu argi hau berrogeita hamar egun hauetan eta pazko-misterioaren handitasuna gogorarazi digu. Gaur, Pentekoste-egun honetan, Pazkoaldia bukatu delarik, itzali egingo dugu pazko-zuzi hau. Sinale hau gabe geldituko gara orain, izan ere, piztu den gure Maisuaren irakaspena hartu dugu pazko-eskolan eta Espiritu Santuaren dohainaz sutuak izan gara; horregatik, guk geuk izan behar dugu orain distiratzeko duen «Kristoren argia»; munduan barrena gure senideen artean distiratzeko duen zutabe argitsu izatera dei egiten zaigu, «agindutako lurraldera» garamatzen irteerako bidean senide horien gidari izateko. Liturgi urtean zehar, ikusiko dugu berriro pazko-zuziaren argi distiratsua, batez ere eliz bizitzako bi unetan: Bataioa dela-eta gure arteko seme-alabek biziko duten lehenengo Pazkoan, eta heriotza jasango dutenek, egiazko bizian sartutik, azkeneko Pazkoa ospatuko dutenean.

Kanta dezagun orain «Jesus, munduko Argia».

℟. Jesus, munduko Argia, Jesus, zinezko Egia, Jesus, betiko Bizia.

Irakurleak: Zu zara zuzentasun-eguzkia, errainu bedeinkatua, lehenengo argi-iturria, gauza guztien gainetik biziki irrikatua; indartsua zara, ulertezina eta adierazezina; ongiaren poza, betea izan den itxaropenaren ikuskaria; Kristo kreatzailea, goratua eta zerutarra, errege aintzaz betea, biziaren ziurtasuna: bete itzazu gure ahotsaren hutsuneak zeure Hitz ahalguztidunaz eta eskaini zeure Aita ahaltsuari gogoko izango zaion eskaritzat.

℟. Jesus, munduko Argia, Jesus, zinezko Egia, Jesus, betiko Bizia.

Irakurleak: Zu zara Aitaren aintzaren ospea, egiazko argiaren distira zabaltzen duzuna, argiaren errainua, distira ororen iturria. Zu, eguna argitzen duen eguna; Zu, egiazko eguzkia, etengabe argi-izpiz beterik azaltzen zarena eta gure zentzuetan Espirituaren sugarra pizten duzuna.

℟. Jesus, munduko Argia, Jesus, zinezko Egia, Jesus, betiko Bizia.

Irakurleak: Zu zara aitaren etxea apalki argiztatzen duen argi-zuzia. Zu zara zuzentasun-eguzkia, iluntzerik ezagutzen ez duen artizarra, goizeko izar argitsua.

℟. Jesus, munduko Argia, Jesus, zinezko Egia, Jesus, betiko Bizia.

Irakurleak: Zu zara munduarentzat egiazko argi-emailea, eguzki betea baino argitsuagoa, erabateko argia eta eguna, gure bihotzeko zentzurik sakonenak argitzen dituzuna.

℟. Jesus, munduko Argia, Jesus, zinezko Egia, Jesus, betiko Bizia.

Irakurleak: Zu zara nire begien argia, Jaun ezia, nire egunetako babesa: argitu, Jauna, nire bidea, Zu baitzara gau luzean nire itxaropen bakarra. Zu zara nire kriseiluaren sugar bizia, oi Jainko, nire argia.

℟. Jesus, munduko Argia, Jesus, zinezko Egia, Jesus, betiko Bizia.

Azkeneko gorapena abestu bitartean, apaizak itzali egingo du pazko-zuzia eta, jarraian, ondorengo otoitza esango du:

Apaizak: Oi Kristo, gure Salbatzaile eztia, piztu itzazu gure argi-zuziak; egizu, argi egin dezatela etengabe zure tenpluan betiko argia zaren horrek indarturik; argitu daitezela gure espirituaren zoko ilun guztiak eta gugandik urrutiratuak izan daitezela munduko iluntasunak. Egizu, Zu ikusi, hausnartu eta bila zaitzagula, Zu bakarrik maita zaitzagula, Zu noiz etorriko itxaroten gauden bitartean. Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan.

℟. Amen.

Azkenik, ohi bezala bedeinkapena emanaz bukatuko da Meza.